108. zk.
2001eko abendua

GEU

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

# agur 2001!




Frankeo itundua 48/77

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

PARRAL

TABERNA

# 6. URTEURRENA

## ABENDUAREN 3 - 4 - 5a

**3an: OSVALDO CICCIOLI (bakarlaria)**

**4an: KASKETE KABARETE-*"Neskapolitan"***

**5ean: PAM taldea**

ZORIONAK PARRAL!!!

Eguerditan

astelehenetik ostiralera

JANTOKI BEGETARIANOA

FRANCISCO JAVIER DEUNA KANTOIA, 4.
01001 - GASTEIZ
TEL.- 945 27 68 33


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**GABON ZORIONTSUAK BIZI DITZAZUELA!!!**

# 108. zk. 2001eko abendua


**4-6. ORR.:**
**ZIZKA-MIZKAK. HILEKO GAIA: BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA**

**7. ORR:**
**GEUgune: KanGeuroak, Geu Azoka, GEUrekin Mendira, KULTUR ERROTA,**

**9. ORR.:**
**LITERATURA (I)**

**11-14. ORR.:**
**2001 URTEARI ERREPASOA**

**16-17. ORR:**
**KOZKORTUZ-OLENTZERO, OLENTZERO!!**

**19. ORR.:**
**LITERATURA (II)**

**21-23. ORR.:**
**GASTEIZ, MUSIKAZ BLAI: Ruper Ordorika, Mikel Urdangarin-Bingen Mendizabal-Kirmen Uribe, Betagarri, Hell Dorado**

**25-26-27.ORR.:**
**Internet-eko euskarazko atariak**

**29. ORR.:**
**ZEUK AUKERATU!**

**30. ORR.:**
**Iñigo Sarasolaren komikia**



GEU Elkartearen ekimenez egina
**Erredakzioa**: Pedro Asua, 2 - 3.a •
**Tfnoa. eta Faxa:** 945 22 21 53 • **e-mail:** geugaste@grn.es

**Zuzendaria:** Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Aldizkariko batzordea**: Josune Velez de Mendizabal, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. **Kazetariak:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. **Argazkiak:** Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa-zuzenketak:** E.B. **Maketa:** Dalvez. **Marrazkiak eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Araba Bixotzian:** Agurtzane Villate. **Kolaboratzaileak:** Iñaki Zorrakin. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain. **Sustapen-harpidetza saila:** E.B.Z., Edurne Begiristain.

**Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500**
**LG: VI-582/92 ·ISSN: 1133-0988 ·**

*Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.*

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila*
Fundazioa Grupo EROSKi
Arabako Foru Aldundia
Caja Laboral Euskadiko Kutxa





4. ORR.

9. ORR.






16-17. ORR.



21-23. ORR.

**URRIKO ALEAN ARGITARATUTAKO IKASTOLA ETA ESKOLEN INGURUKO ERREPORTAJEAREN OSAKETA BAT:**

**LANTZIEGO IKASTOLA:** 1979an sortua, 80 bat ikasle, Haur eta Lehen Hezkuntza (2 urtetik 12 urtera), D eredua, eta euskara bultzatzeko ekimenen artean: Olentzero, Agate Deuna, Ikaspilota Topaketa (bertan Lapuebla, Oion, Bastida eta Vianako ikastolekin elkartzen dira)…


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Hileko gaia

# Zatoz Bertsodromora!

Lau urte igaro dira Andoni Egañak 1997an, Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapela bigarrengoz jantzi zuenetik. Izan ere, lau urtean behin antolatzen da Bertsolari Txapelketa Nagusia eta aurtengoak hamairugarren ekitaldia du. Guztira 37 bertsolari zeuden zerrendan, tartean bi arabar, eta hauetatik 8 bakarrik izango dira abenduaren 16an jokatuko den finalean: final-aurreetatik sailkatutako zazpi eta Andoni Egaña, 97ko txapelduna.

Final-aurreetako saioak oso maila txukunekoak izan dira eta ikus-entzule mordoa bildu da kanporaketetan; pilotalekuak eta antzokiak lepo beteta ikusi ditugu giro ezin hobeaz gozatuz.

**Lerro hauetatik ekitaldi handi baterako gonbitea luzatu nahi dizuegu gasteiztar eta arabarroi**: Abenduaren 16an Donostiako belodromoa, bertsodromo bihurtuko baitugu bertara gerturatutako milaka bertsozalek. Goizeko 11:00etan hasiko da goizeko saioa eta arratsaldeko 16:30etan arratsaldekoa. Aukeran duzue egun guztirako bertso-plana, beste lau urte itxaron nahi ez badituzue… abenduaren 16an zatoz Donostiara, zatoz bertsodromora!




Eta bertsolaritzaren inguruko denetiko informazioa eskuratu nahiez gero:

**www.bertsozale.com**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ARABAKO EUSKAL HOTSAK-ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA ERAKUSKETA IBILTARIAk aurrera darrai:

- **MURGIA:**
  Azaroak 28-Abenduak 19
  (*Veamurgia Etxea-Kultur Etxea*)
- **KANPEZU:**
  Abenduak 21-Urtarrilak 13

**Orain arte ibilitakoak:**

GASTEIZ, LAUDIO, AGURAIN, MAEZTU, ARTZINIEGA, ARGANTZUN, TREBIÑO, ARAMAIO, IZARRA, GOPEGI, ZUHATZU KOARTANGO, OION, LAPUEBLA LABARKA, LEGUTIO eta GASTEIZ (Unibertsitatea).

**GURE LURRALDEKO HISTORIA, ARABAKO EUSKARAREN HISTORIA ZABAL DADIN!**

araba bixotzian

gasteIZkinak

## Gure Gaztetxea



Agurtzane Villate



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## ikusi-makusi



arg. Edorta Sanz

1. XXI. mendeko Txema Burgos artista gasteiztarrak marraztutako zakilak ez, eta XV-XVI. mendeko Migel Anjel artista italiarrak egindakoak bai???


LIBURU BERRIAK

Euskaldunon Egunkaria

2. **Durangoko liburu eta disko azoka. Liburu berriak eta disko berriak**
(Euskaldunon Egunkaria, azaroaren 13an)

***DENOK DURANGORA!!!***

## naturaren isladak

ARABAKO NATUR INSTITUTUA

*Iñaki Zorrakin*



**Orain negu gorrian sartzeko gaudela, esparruan salto bat. Arabatik Cádizera. Kamaleoia** *(Chamaeleo chamaeleo).*



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**Hemendik aurrera atal hau finkoa izango da gure orrietan: zerbait saldu, erosi, alokairuan jarri edota alokatu nahi duzula…? Eskola partikularren berri eman nahi duzula? Umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko lagun baten bila zabiltzala…? HEMEN DUZUE EUSKARAZ EGITEKO AUKERA!!! (Telefonoz edo posta elektronikoaren bidez)**

# GEU AZOKA

- SALMENTAK-ALOKAIRUAK

**Etxe bat salgai.** 3 logela, 2 egongela (behekosu bana), sukaldea, komuna. Garaje-tailerra. 2800 metro karratuko lur-saila. Telefonoa. Lorategia. Oleta (Araba), Gasteiztik 27 km; Otxandiotik 3 km. Leku zoragarria, Urkiolako Parke Naturaletik oso gertu. Anboto eta Orisolpean. 27 milioi pta. Dei 945 263 119 edo igorri mezua daviesti@inicia.es posta elektroniko helbidera.

- UMEAK-ETXEKO LANAK-ESKOLA PARTIKULARRAK-LANA…:

*Gurpildun aulkian dagoen emakume adindu bat paseatzera eramateko **lagun euskalduna behar da** Gasteizen egunero, astelehenetik igandera, ordubetez aritzeko. Telefonoak: 943 46 71 81-943 28 50 07 (Marije).

*22 urteko gazte batek **lan egingo luke asteburuetan**. 945 25 13 39 (Josu).

# KANGEUROAK

**Umeak zaintzeko** prest zaudela? KanGeuroen zerrendan agertu nahi duzula? Deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira -edo e-mailez- eta eman zure izena, telefonoa eta zehaztu zure ordutegia (egun osoz, goizez, arratsaldez, gauez, asteburuak…). Norbaitek KanGeuro baten beharra balu… hemen leukake aukera zurekin zuzenean kontaktuan jartzeko!!

**EGUN OSOZ**
**GOIZEZ**
**ARRATSALDEZ**
**GAUEZ**
**ASTEBURUAK**

## KULTUR ERROTA
**(GEU elkartearen eskutik)**

**ABENDUAREN 11n:**

**KARIDADEKO BENTA**

**Jon Maia bertsolaria kantaria duen taldeak bertso zaharren doinuak ditu oinarri.**

**20.30etan**
**PARRAL Tabernan**




**GEU elkartearen posta elektronikoa: geuelkartea@grn.es**
**Gogoratu aldizkariarena: geugaste@grn.es**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**GEU aldizkarian iragarriz, euskara bultzatu.**
**Mila esker!! Iragar zaitez: 945 22 21 53**

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 · 01001 - GASTEIZ



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

TABERNA
Eguerditan, astelehenetik ostiralera
JANTOKI BEGETARIANOA
SAN FRANTZISKO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.- 945 27 68 33

MIKO
Izozkiak

Obren egite eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30

azkarprint
imprenta / inprimategia
Helbide berria....
Landazuri, 7
• INPRIMATEGIA •
Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Zure begiak, gure kontu

PROFESIONALTASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo teknologiak bakarrik berma dezakete ongi egindako lana. Zerbitzu osoa, norberaren neurrira, hurbila eta saiatua. Horixe duzu gure konpromisoa.

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ELKARLANEAN ARGITALETXEAREN ESKUTIK

**Izenburua: Lagun izoztua**
**Egilea: Joseba Sarrionandia**
**Bilduma: Literatura 216**
**Orriak: 460**
**Salneurria: 3.200 pta**
**Data: 2001eko azaroa**




Oroimena eta hitza galdu ditu Goiok, "izoztuta" geratu da Bluefieldsgo bere erbestean, eta hari laguntzera doa Maribel, errefuxiatuen postaria; Ekuadorrera eraman nahiko du sendatzera, han bizi baita paper faltsuekin Andoni, Goioren ikaskide izandakoa, baina bidaia ez da inondik ere erraza.

Abiapuntu horrekin, hiru narrazio-hari josten dira kontrapuntuan: Maribelek Goioren gaixotasunaren eta laguntzen dien Urioste familiaren kronika egiten du, orainaldian; Andonik, berriz, 14 urte zituela Goiorekin batera Kalaportuko jesuitenean igarotako ikasturtea oroituko du; eta narratzaile orojakile batek geroaldian kontatu edo iragarriko digu nola Goio, sendatu ostean, Antarktikara doan espedizio zientifiko batean.

Managuan, etxetik irten ezinik bizi da Armando -benetako izenez Josu-, Maribelen senarra. Ogia egiten ari ez bada idazmakinaren aurrean ematen du eguna, tip tip tap tip top, itxuraz sekula amaitzen ez den nobela zirriborratzen. Bera dugu egiazki istorio hauen guztien asmatzailea: bera bezalako jende-modu deserrotua barrendik ezagutu nahi du, ez leku batean ez bestean bizi ezinaren esperientzian arakatu, denborak denoi egiten dizkigun zauri eta tolesdurak erakutsi, Maribelekiko maitasunaren itzaltzea esplikatu edo besterik ezean imajinatu. Gai, garai eta gertaleku ugariko eleberria dugu Lagun izoztua, baina, iceberg baten antzera, askoz gehiago da sujeritzen zaiguna, irakurlearen gogoan izotz blokeen moduan noraezean geratuko den sentipen, ideia eta irudien mundu irudimenezko eta hala ere erreala.

Joseba Sarrionandia Uribelarrea (Iurreta, 1958). Euskal filologian lizentziatua, aldizkari askotako kolaboratzailea, itzultzailea, euskaltzain urgazlea, Pott bandaren sortzaileetakoa, kartzelan egona 1980-1985 bitartean eta geroztik iheslaria. Bere obra zabalean aipa ditzagun Izuen gordelekuetan barrena (1981), Gartzelako poemak (1992), Hnuy illa nyha majah yahoo (1995) poema-bildumak; Narrazioak (1983), Atabala eta euria (1986), Ifar aldeko orduak (1990) narratibazkoak; Ni ez naiz hemengoa (1985), Marginalia (1988), Hitzen ondoeza (1997) saio antzekoak.

## ELKARLANEAN LEHIAKETA

**LEHIAKETA HONETARAKO ABENDUAREN ERE GEU ALDIZKARIAREN INGURUKO IRITZIAK eta IRADOKIZUNAK ESKATUKO DIZKIZUEGU: aurtengo aleen inguruko iritziak, proposamen interesgarriak, aldizkariak falta duena, soberan duena...**
*****KRITIKA KONSTRUKTIBOENAREN EGILEARI EMANGO ZAIO SARIA!!**
**ZORTE ON! ••••• BIDALI POSTAZ EDO E-POSTAZ.**

ELKARLANEAN-EK AURKEZTEN DU...:

## AXA MIXA ZILARRA AGENDA-EGUTEGIA

**EGILEA: J.M. OLAIZOLA (TXILIKU)**
**MARRAZKIAK ETA DISEINUA: ELENA ODRIOZOLA**
**SALNEURRIA: 2.500 pta.**
**DATA: 2001eko azaroa**






Kontuak, kantuak, igarkizunak, jolasak, esaera zaharrak... 4 ataletan banaturik: negua, udaberria, uda eta udazkena.

## GAZTETXULO hire martxan!

GAZTETXULO aldizkariaren lehen urteurrena ospatzeko azaroaren 12tik 16ra bitartean Euskal Herri osoko errepideetan ibili da GAZTETXULO Busa eta azaroaren 16an Gasteizen izan zen. Kultur Etxean Jon Elola, Getary Etxegarai eta Maider Yabar aktoreek aldizkariaren ibilbidea laburbiltzen duen antzezlan barregarria jokatu zuten. Tamalez jende gutxi bildu zen bertara!




*Zorionak Gaztetxulo eta urte askotarako!*



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# NONBAIT

ZURE EUSKAL DENDAK

***Kamisetak:*** Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... ***Euskal oihalak:*** mantelak, zapiak...

***Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak***

**Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7**

**Tel./faxa: 945 232229 • nonbait@nonbait.com**

**GASTEIZ**

---

**UZTINTZA**

**KERAMIKA TAILERRA**

***KERAMIKA HERRIKOIA ETA BERRIA***

**HEDEGILE kalea (Korreria), 120**

**Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ**

---




**JANTZI ETA OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27

Tfnoa: 945 26 07 10

GASTEIZ

---

**AMILAMIA**

*arropa eta osagarriak*



**Pintore kalea, 17**

**tfnoa:**

**945 27 40 09**

**GASTEIZ**

---



**ESKUA!**

**arropa eta osagarriak**

**HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!**

**Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38**

---

**Quetzal**

*Hegoamerikako jantzirik ederrenak*

**Pintore kalea.** *(S. Frantzisko kantoiko ertzean)*

Tfnoa: 945 25 03 52

---

**Confecciones Pinedo**

**JANTZIAK**

**San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ**

**Tfnoa.: 945 23 39 90**

---

**PLATER MIMATUAK...**

**EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!**

Jatetxea - Taberna



"EL CLARETE"

Unai eta Patxi Fernandez de Retana

**Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ**

**Telefonoa: 945 26 38 74**

---

*vitrales*

**BEIRATE ESTUDIOA**

MIKEL DELIKA

Txikita kalea, 1

Tfno. 945 14 64 10

GASTEIZ

---

**Argazki - Estudioa**

**Erramun**

| | |
|---|---|
| *Heraclio Fournier, 23* | *Askatasun kalea, 5* |
| *Tnoa: 13 71 02* | *Tnoa: 26 19 91* |
| *01006* | *01004* |

---

**HEGOALDE**

**Euskaltegia**

*Matrikula zaitez !!*

***Jose Lejarreta 9 behea***

***Tfnoa 945 28 41 96***

***01003 GASTEIZ***

---

*ARTEPAN*

*Artisau Okindegia eta Goxotegia*

**Jesús Guridi kalea, 2**

**Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37**

**01005 GASTEIZ**

---

RAFA TEJA ATELIER

*"Zetazko eta kotoizko ebunak eskuz margotuak"*

- ZAPIAK -

**Arantza Arregui**

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




# HAMAIKA KONTU HAMAIKA ALETAN

*Edurne Begiristain*

## URTARRILA

Milurteko berriari ongi etorria emateko, GEUn Andre Mari katedralaren inguruko erreportaje zabal eta interesgarria argitaratu genuen. XXI. mendeko katedralaren gaineko informazioaz gainera, Gasteizko Udal Txistulari Bandaren 75. urteurrenari ere tartea egin genion aldizkarian. Oso bestelako gai bat ere jorratu genuen, hots, ireki berria zen Pittilingorri sex-shopean aurkitu zitezkeen "gailu" erotiko guztien ingurukoa.

## OTSAILA

Otsaileko alean Arabako Euskal Hotsak erakusketari eskaini genion gure aldizkariko azala. Izan ere, otsailaren 16an inauguratu zen erakusketa Montehermoso kulturunean eta orduz geroztik Arabako hamaika herritan ikusteko parada egon da (eta 2002tik aurrera Arabatik kanpo ere aterako da). Barruko orrietan hiru erreportaje nagusi zeuden. Batetik, TMEO aldizkariak hamalau urte kalean zeramatzala aprobetxatu eta bere historiari errepasotxoa egin genion. Bestetik, Ibon Saenz de Olazagoitia artistari elkarrizketa interesgarria egin genion eta, azkenik, Korrika Kulturalaren inguruko datuen berri eman genuen.

## MARTXOA

Gai ugari jorratu genituen martxoko zenbakian: Korrika 12 (Gasteizen hasten baitzen), hausnarketa desberdinak Behi eroen auzian, Euskararen Udal ordenantzaren gaineko elkarrizketa Eba Gonzalez de Heredia EHko zinegotziari, eta beste bat hain ezaguna egin den Unax Ugalde aktoreari.

## APIRILA

Zenbaki "magikoa" izan zen 100. alea. GEUk ehun ale ospatzeko arrazoi franko zituenez, ehun aleko historiari birpasoa egin genion erreportaje zabal batean.

## MAIATZA

Euskarari zukua atera genion azalean, 100. aleko jaia gogoratuz. Barruko orrialdeetan, berriz, argazkigintzari tartea egin genion Ramon Aranbarri Bengoa argazkilariaren eskutik. Gasteizko Udala eta euskararen arteko harreman "bereziaz" informatu genuen eta Encina Serrano Kultur zinegotziaren "Ezin dugu gaztelera galtzen utzi" esaldiak aho bete hortz utzi gintuen. Lesgaytegia eta 'Txerokiren Txorakeriak' liburua ere aurkeztu genizkizuen



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa







Gasteizko Udaleko aurrekontuen adosketarekin eman zioten PPk eta PSE-EEk ongi etorria urte berriari. Izan ere, **urtarrilaren** erdialdera aipatu bi alderdiek 241.352 milioi pezetako aurrekontua adostu zuten eta martxoaren 13an behin-betiko onartu. Udalaz gain, Arabako Aldundiak ere bere aurrekontuak aurrera atera zituen PP, PSE-EE eta UAren botuei esker.
Ildo honetatik, gogoratu beharra dago Udaleko aurrekontuetan euskaltegiei dirulaguntzarik ez ematea erabaki zuela PPk. Alfonso Alonso alkateak honako argudioa eman zuen bere erabakia azaltzeko: ingeleseko akademiei dirurik ematen ez zien bezalaxe, euskaltegiei ere ez ziela dirurik eman behar. Azkenean, Euskaltzaleon Elkarguneko taldeek egindako presioari esker erabakian atzera egin zuen PPk. Aitzitik, talde euskaltzale berak egindako beste eskakizun batek ez zuen alkatearen onarpena jaso, hots, euskararen aldeko Udaleko lan-taldea atzera biltzeko eskaera (ekainera bitarteko kontuak).
Baina, bestelako albisteak ere eman zituen hile honek. Esaterako, pelikulak jatorrizko bertsioan eskaintzen zituen Azul zinemak ateak itxi zituen, diru arazoek bultzatuta. Bestaldetik, 13an Gasteiz, Bilbo eta Donostiako gotzainek deituta 50.000 pertsona bildu ziren Gasteizen, bakearen alde.

Oso bestelako aldarrikapenak egin zituzten Gasteizko hainbat emakumek **otsailean**. Izan ere, Prudentzio Deunako danborradan parte hartzeko eskubidea adierazi zuten. Ika-mika askoren ostean, azkenean bi emakumek baino ez zuten danborra jo apirilaren 27ko gauean. Eta aldarrikapenekin jarraituz, iskanbila itzela eragin zuen hizki "misteriotsu" batek. Gasteizko Z izeneko argitalpena agertu

zen hiriko txoko asl
informazioa "iraing
Arabako ahaldun nagus
eta Alfonso Alonso alka
zuen Artium museoa
hautaketak ere; azkene
de Durana bilbotarra au
berriaren zuzendari.

**Martxoko** gertaer
azpimarratzekoak dira b
martxoaren 8an (Emaku
gain, jakina!) Trebiñok
sartzearen inguruan egi
hirugarren urtemuga b
bestetik, martxoaren 3k
gertatu zirenetik 25 urte
gain, aipatzekoa da
jendetzak festa giroan
Gasteiztik abiatutak

Hain alaiak ez diren
beharra dago. Izan ere
Sobrongo parkeko bi h
Aresti zuzendaria hil zu
ematera kaiolan sart
dagokionez, Arte Ederre
ireki zen apirilaren 21
egon ondotik.

Gasteizko kirolak z
arrazoiak izan zituen
futbol taldeak eta
saskibaloikoak Europak
nahiz eta zoritxarrez
garaipenik erdietsi.

**Ekainean** euskararen a
baino ozenago entzun z
70.000 lagunek es
Argantzunen (Trebiño





Jakin badakigu 2001. urtean Araban eta Gasteizen jazotako gertaera garrantzitsuak laburbiltzea ez dela lan samurra, izan ere zeresana eman duten albiste asko egon baitira gurean, baina ondorengo laburpenean gure irudiko aipamen berezia merezi duten jazoerak bildu ditugu:



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# 2001 URTEA ARABAN







kotan eta bertako
arritzat" jo zuten
i Ramon Rabanerak
teak. Polemika sortu
ren zuzendariaren
an, Javier Gonzalez
keratu zuten museo

ei dagokienez,
i urtemuga. Batetik,
imeen eguna izateaz
o biztanleei Araban
ndako galdeketaren
bete da aurten, eta
o jazoera lazgarriak
egin dira. Horretaz
29an izugarrizko
hartu zuela parte
o Korrika 12an.

berriak ere aipatu
, **apirilaren** 10ean
artzek Jose Ignacio
uten, animaliei jana
u zenean. Arteari
tako museoa berriro
ean, urtebete itxita

oriontsu egoteko
**maiatzean**. Alaves
Tau Baskonia
finala jokatu zuten,
, ezin izan zuten

ldeko aldarria inoiz
en Araban, izan ere
ku hartu zuten
) 17an ospatutako

Araba Euskarazen. Bestetik, milaka lagunek hartu zuten parte EHEk ekainaren 23an Gasteizen deitutako manifestazioan. Azkenik, batzuentzat albiste tristea izan zen Iñaki Landak Zeledonena egiteari utzi izana. Ekainaren 15ean jakin genuen Landaren erabakia eta egun batzuk geroago bere ordezkoaren izena: Gorka Ortiz de Urbina.

**Uztailean**, bikote homosexualen arteko ezkontzak onartzeko bidea Legebiltzarrari proposatu nahi ziola adierazi zuen Alfonso Alonsok, baina gero, haizeak hitzak eraman zituen. Trebiñok ere izan zuen zer esanik, izan ere Trebiñoko Udalak errotulazioa euskaraz jartzeko hartutako ebazpena legezkoa zela erabaki zuen hilaren 16an Gaztela-Leongo Auzitegi Gorenak.

Euskal Herrian azken urteotan gertatutako suterik handiena jazo zen **abuztuaren** 2an Gaubean, 230 hektarea baso erre zirelarik. Abuztuko bukaera aldean, berriz, Bartzelonan hasi eta Araban jarraipena izan zuen polizi operazioa izan zen. 24tik irailaren 10era Guardia Zibilak 24 lagun atxilotu zituen Araban, horietako hamabi kartzelan daudelarik. Atxilotuek torturak salatu zituzten.

Gertaera horien haritik, 1.200 lagun inguru manifestatu ziren **irailaren** 22an Gasteizen *Kalea guztiona da. Adierazpen askatasuna* lelopean. Eta, besteak beste, hile honetan ere eta urtero bezala arabarrok berriro ere *bai euskarari!* aldarrikatuko dute Zigoitia Euskaraz eta Euskara Añanan Mingainean-en. Amarika Aretoaren aldeko sinadurak bildu zituzten hainbat artistak Arabako kultur diputatuak iragarri itxieraren aurka.

Gasteizko Justizia Jauregiaren kontrako atentatua izan zen **urriaren** 2ko albisterik deigarriena. Baina, horretaz gain, egon zen oihartzuna izan duen beste albisterik urrian; hain justu ere, alkateak Gasteizko Gaztetxea itxiko zuela jakinarazi zuen urriaren 16an. Egun batzuk geroago, 20an, manifestazio jendetsua egin zen Gaztetxearen alde.

**Azaroa** lan arloko gatazka batekin etorri zitzaigun, Gamesak Miñaon duen lantegiko beharginek protestak hasi baitzituzten enpresak iragarritako kaleraketez protestatzeko. Bestaldetik, energia eolikoaren inguruko berririk ere egon zen; izan ere, Badaiako Parkea nahi duten ala ez bozkatuko zutela erabaki zuten inguruetako 19 herrik. Eta bien bitartean, Gaztetxearen auziak hor darrai…



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## EKAINA

Trebiñon ospatu behar zen Araba Euskaraz-i orrialde bereziak eskaini genizkion 102. alean. Maeztuko Los Roturos hotelaren inguruko datuek, Akobe-Zutabe izeneko elkartearen zereginek, Diocesanas-ek eskainiko zituen euskarazko klaseek eta musika arloan Tribu Chaman taldearekin izandako solasak bete zuten ekaineko alea. Eta gure erdiko orriak bertako kirolariak zoriontzeko erabili genituen.

## UZTAILA

Argitaletxea baino gehiago bezala definitu genuen Arabera kultur taldea, eta haren inguruko datuak eman genituen. Gasteizko Gaztetxearen 13. urtemugak, euskarazko Udalekuen auziak eta Avia-Escor atletismo talde arabarraren bi kideri egin elkarrizketak uztaileko aleko edukia osatu zuten. Araba Euskaraz-ek ere irudi tartea izan zuen.

## ABUZTUA

Abuztuko alea berezi samarra egiten saiatu ohi gara beti, eta aurten ere halaxe egin genuen. Izan ere, Gasteizko jaien historia urtez urte, berriz berri eta irudiz irudi kontatu genuen. Aldi berean, Gorka Ortiz de Urbina Zeledon berriari ongi etorria egin genion.

## IRAILA

Irailean, ale bereziei jarraipena emanez, Gasteizko euskal idazleei omenaldi xumea egin nahi eta literaturari buruzko monografikoa argitaratu genuen. Bertan, Gasteizko zazpi idazleren narrazio, ipuin eta poesiez eta hiru irudigileren marrazkiez gozatzeko parada izan genuen.

## URRIA

Arabako euskarazko irakaskuntza mapaz zabal informatu genuen, Gasteizko euskal eskola publiko zein pribatuen inguruko datu zehatz-mehatzak emanez eta Arabako Errioxari tartea emanez. Bestetik, Olabide Ikastolako Lilura kanta taldearen maila ona, Arantza Lopez Marugan soziologoa eta mendizalearen liburua eta Biharamuneko pilula izan genituen hizpide.

## AZAROA

Gasteizko hormek zer esanik badutela erakutsi genuen pasa den alean, hirian aurki daitezkeen pintada, mural eta kartelen argazkien bitartez. Kaotiko taldeari ere elkarrizketa egin genion, baita Sakanako Sokatira taldeko kide den Ainara Razkini ere.
















Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## ZURE HARATEGIAK

*Jose Luis*

**GARMENDIA**

HARATEGIA-URDAITEGIA



**Andaluzia kalea 13**

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

**XABIER**

**AIZPEOLEA**

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



***gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak***

## Zure denda erotikoa

**SEX**

**PITTILIN GORRI**




GASTEIZ

Tren geltokiaren ondoan

Tel:945 15 42 60

DONOSTIA

OIARTZUN




altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

KOZKORTUZ

**OLENTZERORI GUTUNA**

# NOR DA OLENTZERO?

Olentzero, Olentzaro… Euskal Herriko pertsonajea, Gabon-gauan etxeetara datorrena eta neguko solstizioa irudikatzen duena. Beste izen batzuk: "Onentzaro", "Onontzaro", "Orentzaro". Izenak "gauza onen garaia" edo "eskean ibiltzeko garaia" (*oles egitea* euskal kopla zaharretan agertzen da eta eskean ibiltzea da; hortik oles-aroa) esan nahi omen du. Artzain edo ikazkinaren itxura du.

## ADI UMEAK, IDATZIOZUE HEMEN OLENTZERORI!

## (*Eta politago geratzeko marrazkia koloreztatu dezakezue!)

Moztu eta Olentzerori bidali




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

OLARIZU MENDI
HERRIKO TABERNA
JOSE URUÑUELA KALEAN

# GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA
"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN

**Xabier**
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (Kutxi), 23

**Euskara bultzatu nahi?...**
945 22 21 53

MERKURIO-KADMIOAN %0a
CEGASA PILAK INDARTSUENAK ETA EKOLOGISTENAK
CEGASA INTERNATIONAL
ALCALINA




CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA




ametsak
Kañamo Denda - Grow shop
C/ Herrería nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax.: 945 26 46 43

IBAIZAR
NEKAZALTURISMOA
"Zure ametsak egia bihurtzen diren tokia"
IBAIZAR BASERRIA, 4
SOJO-ZOLLO · 01478 ARABA
Tel/Faxa: 945 396 686
www.euskalnet.net/eskutxi
E-Mail: eskutxi@euskalnet.net

ITURRIETA
Sagardotegia
BETIKO SUKALDARITZA
INGURU ZORAGARRIAN
OSTEGUNETIK IGANDERA
10.00etatik aurrera
Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Jean-François Sauré Argitaratzailearen eskutik:

## FUSILA URPEAN

***Egilea: Hermann***
***Itzultzailea: Gerardo Markuleta***
***Generoa: Abenturak***




Estatu Batuetako hegoaldean gaude, oraindik ere budutik gertu dauden erritoak praktikatzen diren padura inguru batean. Bi gaztek Jason izeneko norbait aurkitu, eta putzu huts batetik aterako dute. Ondoren, beren herrixkara eramango dute.

Giroa itogarria da, batetik familiakoen arteko harremanak gaiztoak direlako, bestetik lapurreta bat tarteko azaldu den "maletagatik". Batzuek herritik alde egitea erabakiko dute; alabaina, beste batzuek bertako hanpako kideen erasoari aurre egin beharko diote, dirua eraman ez dezaten…

## KAPAK ETA LETAGINAK

***Egileak: Ayroles eta Masbou***
***Itzultzailea: Pedro Diez de Ulzurrun***
***Generoa: Umorezko komedia***




Itsasontzi turko baten barruan, kofre bat. Kofrean, bitxitegi bat, bitxitegian, botila bat, botilan, mapa bat, eta mapa horretan… Irla Tangerinoetako altxor miragarriaren kokapena!… Ez dute gehiago behar bi aitoren seme harrok, bi ezpatari, gudukari eta sasi-poeta finek, kartzelaz kartzela eta galerarik galerara, munduaren azken muturreraino eramanen dituen abentura batean murgiltzeko.

EAJ PNV

ERNE, EUSKALTZALEOK!

ERNE, ALFONSO ALONSO ALKATEAK D EREDUAREN

INGURUAN DARABILEN HORREKIN!



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




KIDE

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

EA
eusko alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI

GA
gazte abertzaleak
www.gazteabertzaleak.com

ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxa. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Ruper Ordorika:

# *"Hastapenetatik oso entzulego interesatua izan dut, benetan babestu nauena"*



**Panazko amerikana beltzak eta pastazko betaurrekoek identifikatzen dute bera, baita bere gitarrak ere. 80. hamarkadatik Euskal Herriari hitza eta musika jartzeaz ezaguna oso den kantautore mitikoa dugu oñatiar hau. Berrogeita bost urte (1956.eko abuztuaren 16an -San Roke egunean- jaioa) eta hamahiru lan, azkena, "Hurrengo goizean", orain aurkezten diguna.**

***JOSUNE VELEZ DE MENDIZABAL***

**-1980 URTETIK DISKOAK KALERATZEN, MUSIKA MUNDUAN MURGILDUTA...; ATZERA EGIN ETA ZURE IBILBIDEA IKUSTEN DUZUNEAN ZER-NOLAKO HAUSNARKETA EGITEN DUZU?**

-Ordutik hogei urte pasa dira eta nik ikusten dudana da garai horretan sumatzen nituen gauzak lortzen ari naizela orain... Poliki-poliki nire eginkizuna, nire ofizioa menderatzen ari naiz eta bilakaera honetan aldaketa asko ikusi dut, nik ere pasatu ditudanak... Bestetik, nekez esan dezaket gure mundua asko aldatu denik... Kantuari buruz, hor ezin dezaket irakurketa positiborik egin, uste baitut euskaraz egin denak ez duela zabalkunderik lortu, ni hasi nintzenean zabalkunde gehiago zuela pentsatzen dut eta zentzu horretan aurrerapenik ez dut ikusten.

**-BERAZ, ZURE IRITZIZ EUSKARAZKO EKOIZPENAK EZ DU LEKURIK TOPATU MERKATUAN...**

-Hori da. Baina bere kontestuan hartu behar dugu hau, hau da, indartsuak gara eta musikaren produkzioa hobekien doan alorra dugu..., ...arazoa, berriz, eskaintza bainoago eskaria da, eskaintza handia den arren eskaria urria baita.

**-20 URTEZ IZAN ZARA ZU MUNDU HONETAN, GAINERA TONTORREAN MANTENDUZ. NOLA DA POSIBLE OSPEARI EUTSIZ MANTENTZEA HAINBESTE DENBORA?**

- Akaso oso tematia naizelako izango da. Gainera, nik kantua eta musika behar ditut, beharra da..., ...ni oso lotsatia naiz eta sendagai terapeutikoa bailitzan erabiltzen dut. Beste arrazoi batzuk, produkzio handia ez dudala, izan ere, hiru urtero edo kaleratzen ditut lanak eta nolabait nire eginkizun honek ez du erretzen. Hortaz aparte, hasieratik oso entzulego interesatua izan dut, benetan babestu nauena.

**-ESTUDIOAN GRABATUTAKO DISKOA DUZU "HURRENGO GOIZEAN" IZENEZ EGINIKO AZKEN HAU. ZUZENEKO "GAUR" (AZKENAURREKOA) LANAREKIN KONPARATUZ GERO, ZEIN DA ALDEA?**

-Nik uste dut zuzenean grabatzerakoan beste disko bat ateratzen dela, nahiz eta azken disko honek aurreko diskotik ere baduen zerbait...

Zuzenean egiterakoan beste harreman bat sortzen da; hala eta guztiz ere, estudioan beti lan handia egin behar da...

**-KOLABORATZAILE ONAK, OSPETSUAK...**

-Diskoa batez ere hiru musikarirekin egin dut -Nando de la Casa, Dani Perez eta Joseba Tapia- eta, horietaz gain, kolaboratzaileak ere izan dira bertan: Ben Monder New Yorkeko gitarrista handia da eta honako hau elkarrekin egiten dugun hirugarren diskoa da; Kenny Wollesen bateria New Yorken ere ezagutu nuen eta hau berarekin grabatzen dudan bigarren diskoa da; azkena Fernando Saunders baxua da, aspaldian ezagutzen dudana, baina hau batera egiten dugun lehen lana da.

**-DISKOA DEFINITZERAKOAN BEREZKOA BEZALA IZENDATU DUZU, ZERGATIK?**

-Azkenaurreko diskoa grabatzen bukatu eta azken hau burutzen hasi nintzelako, pentsatzen dut: hasieratik lehendabiziko arnas hori, melodiak, alegia, gordetzen saiatu naiz ofizioa ahalik eta gutxien sartzen..., hau da, neurri batean apainketa handiegiak egiten ekiditzen duen metodoa aurrera era-

**RUPERREN DISKOGRAFIATIK BIDAIATZEN:**

- HAUTSI DA ANPHORA (1980-Elkar)
- NI EZ NAIZ NORUEGAKO ERREGE (1983-Elkar)
- BIHOTZERREAK (1985-Elkar)
- HENRY BENGOA INVENTARIUM (1988-Elkar)
- EZ DA POSIBLE (1990-Gasa-Wea)
- BILDUMA BAT (1992-Elkar)
- RUPER ORDORIKA & Mugalaris (1992-Emak Bakia Mini)
- HIRU TRUKU (1997-Nuevos Medios)
- SO'IK SO' (1995-Nuevos Medios)
- HIRU TRUKU 2 (1997-Nuevos Medios)
- DABILEN HARRIA(1998-Nuevos Medios)
- GAUR (2000-Esan Ozenki)
- HURRENGO GOIZEAN (2001-Metak)



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

manez... Badago poeta bat dioena erretorika alde batera utzi eta gorputzak eskaintzen dizunari erantzun behar zaiola, kuriositatea iturri zabaltzat hartuz, kantu batzuk eginez eta grabatuz eta horien instantzia gehienak gordetzen ahaleginduz...

**-Gasteiza zatoz abenduan, nolako jarraitzaileak dituzu hemen?**

-Nire taldea ia beti gasteiztarrez osatua egon da, orain ere bost gara eta horietatik hiru gasteiztarrak dira. Ni hemen hasita nago eta lagun asko dut hemen. Nire taldearen sorterria den heinean beti izan dugu jarraitzaile kopuru handia, gainera hemen etxean bezala egoten naiz.

**-Eszenatokiari dagokionez, zer nahiago?**

-Pentsatzen dut lokalak ere asko bideratzen duela kontzertua... Aukeran, ikusleengandik gertu egon nahiago dut, baina hemen ez da horrela izango. Dena den, ohore bat da niretzat Principal bezalako antzoki batean jotzea..., jendea eserita egon arren beste dohain batzuk ere baditu honek, soinua eta oso leku gogokoa dela batez ere. Denetan ibiltzen gara ondo, baina toki informalagoak oso interesanteak dira...

**-Manolo Garciak Gasteizen urrian eginiko kontzertua eskaini zizun...**




-Kontzertu aurreko egunean egon nintzen berarekin, hurrengo egunean kantaldia nuen Zuberoan eta, beraz, entseiuan izan nintzen berarekin; banekien eskaini behar zidala...

**-Ba al zenekien, beraz...**

-Aspaldiko lagunak gara, nahiz eta oso mundu ezberdinetan bizi garen egun garai batean ez zen horrela. Bere kide ohiaren lagun oso ona naiz eta Bartzelonan jo izan dugu elkarrekin. Manolok nirekin kantatu zuen Bartzelonan izan nintzen lehendabiziko aldian, goitik behera euskaraz ikasitako kanta abestu zuen... "En fin", aipa-tzekoa da, beste esfera batean bizi den pertsonajeak gordetzen duen harremana... Euskal Herrira etorri den bakoitzean deitu nau, gogoratzen dut nola behin Lisboatik deitu eta ordubete aritu ginen telefonoz hitz egiten, bere disko guztiak ere bidaltzen dizkit eta nik berari... Aurreko ikuskizunetan eszenatokira atera izan nau eta hemen egon zen azkenengo aldian ere hori bera egin nahi zuen...

**-Euskal Herritik kanpo kontzerturik eskainiko duzu?**

-Bartzelonan eta Madrilen egingo ditut, baina horiek izaten dira normalean Euskal Herritik kanpo egiten ditudanak; hortik aurrera tamalez egiten dudana oso anekdotikoa da...
Beharbada Galizira ere joan naiteke, Mallorcara, Kataluniara, baina bestela hastapenetan bezala nabil... Tenerifen ere lau aldiz egon naiz, baina gure eremu naturala hau da.

**DATOZEN KONTZERTUAK:**

| | | |
|---|---|---|
| *-2001-12-14* | *BILBO, KAFE ANTZOKIA* | *22.00* |
| *-2001-12-15* | *AEZKOA, ARIBEKO JUNTETXEA* | *20.30* |
| *-2001-12-19* | *GASTEIZ, PRINCIPAL ANTZOKIA* | *20.30* |
| *-2001-12-20* | *DONOSTIA, GAZTESZENA* | *21.00* |
| *-2001-12-21* | *BERANGO, HERRIKO FRONTOIA* | *22.00* |
| *-2001-12-28* | *ELGOIBAR, HERRIKO ANTZOKIA* | *22.00* |

# Betagarri-REMIX (Metak)

Betagarri taldearen disko berriak ez ditu kantu berriak biltzen, bitxikeriak baizik: "Freaky Festa" diskoan agertzen diren zenbait kanturen birnahasketa, Kaki Arkarazo, taldeak berak eta Trikuk eginikoak, Graduate taldearen "Elvis Should Play Ska" kantuaren bertsio bat eta Ikasle Abertzalearentzat eginiko kantua. Betagarrik azken urteotan talderik aktiboenetako bihurtu da, hiru urteren buruan 3 disko kaleratuz, eta hainbat eta hainbat kontzertu eskainiz Euskal Herrian zein Estatuan.




Talde edo disko zehatz baten inguruan lerro batzuk idaztea subjektibitatean erori gabe zaila zena aurretik ere bagenekien. Halaxe esana zigun gure lan batekin egin behar izan zuen kazetari batek.

Tira, estutu dezagun gure burua apur bat gehiago, izan ere, orain gure txanda iritsi da eta gure "Remix" izeneko azken lanari buruz mintzatu behar gara. Hitz hau izan daiteke hobekien definitzen duena, lana. Oraingoan betebeharra, adiskide batzuen eta makinen laguntzaz, gure aurreko diskotik (Freaky Festa EO186 CD/MC) ateratako hainbat kantu bernahastea izan da. Honi gehitu dizkiogu bi kantu, batetik, IAren hamargarren urtemugarako idatzi genuen Iraultzeko Prest izeneko abestia berreskuratu dugu eta, bestetik, Herriak Du Hitza izenburuko kantua ere sartu dugu.

Maiz, teknologiaren mesedeak aplikatzen dituen jendearen lanak entzuterakoan, tentazioan eroriaz, zeure buruari galdetzen diozu zein traza hartuko lukeen zure musikak guzti hortaz baliatu ondoren. Ezaguna ere bada zein den tentaldiei muzin egiteko modurik onena...

Hau da Triku, Betagarriren ohiko ekoizlea, eta Kaki Arakarazorekin batera egiteko gai izan garena. Disko honetan agertzen den azken kantua gure lagun den DJ Cubo-k nahastu du.

Emaitza, duina eta gure entzuleei luzatzeko modukoa delakoan gaude. Hemen duzue, espero dugu gure azken lan hau "Remix" benetan zuen gustukoa izatea. Ziurrenik batek baino gehiagok galdetuko dio bere buruari edota guri norantz doan Betagarri "makinekin" bere bidean elkartu eta gero. Egiaren esaterako, ez dugu horretan gehiegi pentsatu, beraz, ez dirudi Betagarriren datozen lanetan ezer gehiegi aldatuko denik.

***Tira, amaitu dut, ez da bada hain zaila izan.***

*Unai Lobo (Betagarri)*



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# 'BAR PUERTO'

MIKEL URDANGARIN eta BINGEN MENDIZABALek bukatu berri dute aurtengo Durangoko Azokan BAR PUERTO izenpean aurkeztuko den lan berria. KIRMEN URIBE idazle gaztearen istorio batean oinarritua bada ere errekreazio musikala bihurtu dute bi musikariok lan hau eta horretarako doinu herrikoiak eta propio egindako kantuak uztartu dituzte. Gasteizko Canton de la Soledad estudioan aritu dira Juanan Ros teknikariarekin eta jazz eta folk munduko beste musikarien partaidetzarekin: Josu Zabala, Hasier Oleaga, Josu Izagirre, Aitor Rubio...



• zuzenean aritu dira:
*azaroaren 17an* · · · GASTEIZ, Aldabe Zentroan
*azaroaren22an* · · · · BILBOko Magisteritza Eskolan
• arituko dira:
*abenduaren 1ean* · GETXO Antzokian
*abenduaren 7an* · · · DURANGOko San Agustin aretoan
*abenduaren 18an* · IRUÑEAko Gayarre antzokian

"Bar Puerto" egitasmoak kontakizun bat eta hamahiru kantu biltzen ditu asmo beraren harira. Kontakizunak hirian bizi den gizon batek aspaldi itzuli ez den sorterrira egiten duen bidaia du gaitzat. Itzultzeko aitzakia jaiotetxea bota behar dutela da, arrantzale auzo batekoa, errepide handi bat egiteko. Herrian den egunetan auzo zahar hartan bizi izandakoen testigantza jasoko du: arrantzale gazte eta zaharrak, Afrikako etorkina, arrastean arrantzan egitera etorritako galiziarrak, gerran kartzelan jaiotako emakumea... Denen pasarteak jasoko ditu bere kaieran. Baina, baita ere, gogoetak, poemak eta garai bateko kanta zaharrak.

Disko honek "Bar Puerto. Bazterreko ahotsak" izeneko ikuskizunean du lehen jatorria. Ikuskizun horrek literatura, musika eta bideoa batzen zituen. Bideoz grabatuta zetozen, baita ere, hainbat lagunen benetako testigantzak.

Portu horretatik abiatu eta bidaia berri bat jarri dute abian Mikel Urdangarin eta Bingen Mendizabalek. Kirmen Uriberen hitzak oinarri hartuz, irakurketa musikal berrizalea egin dute. Kanta zaharrak eta berriak batera datoz, garai eta jatorri ezberdinetako jendearen ibilerak. Denak ere alderrai, denak ere bidean, denak ere portuko taberna bitxi horren epelera.




***(Gaztelupeko Hotsak)***

# HELL DORADO: MUSIKAZALEEN GUNEA

• Azaroan inauguratu zen Hell Dorado, Gasteizko musikazaleen elkarte berria. Hirurehun bat bazkide ditu kultur elkarte honek eta musikarekiko zaletasuna da partaideak batzen dituen ezaugarri bakarra. Bertan musika estilo desberdinekin zerikusia duten jarduerak antolatzen dituzte: hitzaldiak, mahai-inguruak, bideo emanaldiak, jardunaldiak, esperientzia eta iritzien elkartrukaketak... Orain artean atzerrian baino ez ziren gisa honetako guneak aurkitzen eta Iñaki, Obligaciones taldeko partaideak GEUri azaldu dionez, "bazen garaia halako gauzak Gasteizen egiteko".

• Hell Dorado sortzeko ideia duela urtebete luze mamitzen hasi zen eta lau musikari izan dira ekimen berriaren bultzatzaileak: Juan (Los Padrinos), Jimmy (S.A.), Ernesto (All Nighters) eta Iñaki (Obligaciones). Guztiak iritzi berekoak ziren musikaz gozatzeko Gasteizen eskaintza eskasa zegoela esaterakoan eta horrelako elkarte baten sorrera beharreztkotzat jotzerakoan.

• Inolako erakundeen dirulaguntzarik gabe aurrera atera den proiektua izan da hau eta soilik bazkideek jarritako diruarekin posible izan da martxan jartzea.

• Egindako ahalegina ospatzeko, inaugurazio ekitaldirako (azaroak 17) Sex Museum talde madrildarra ekarri zuten. Kontzertuak ematea gunearen helburu nagusiena ez bada ere, beste talde batzuk ekartzeko asmoa badutela azaldu du Iñakik. Hala, hilaren 7an Gasteizen sekula egon ez den New Yorkeko Sugar Man 3 taldeak joko du, eta 14an, berriz, Nuevo Catecismo Catolico donostiarren doinuak entzuteko parada izango dute Hell Doradoko bazkideek. Baina bazkideek bakarrik, izan ere gunea ez dago publikoari irekita. Hasiera batean, beraiei zuzenduta baitaude bertan burutuko diren jarduerak.

***Zorte on ibilbide berrian!***

***Edurne Begiristain***



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldua

• Makailua eramateko prest

• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Bacalao Giraldo

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 · Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

IRUSTA
TABERNA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

KA LA MUA
TABERNA
Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria,5
Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

EL BAR Kutxi



eguneko menua

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak
Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

GEU
aldizkaria
etxean
jaso nahi?...
...
945 22 21 53

Garagardotegia
Ostiraletik
Igandera
IREKITA
(astelehenetik
ostegunera
itxita)
La Blanca
* Oilasko erreak
* Kazolatxoak
Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

XIXILU
JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 · GASTEIZ

bar · restaurante · albéniz
Errege atea, 9 · GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Udaberria
euskaltegia
• Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
• Musika eskola
• Dantza
Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

"Herri kirolak eta herri jolasak kultura dira"
KULKI
Tlf.: 945.139.699




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




# Sarean zehar... Euskaraz!

AINHOA FERRON

**Internet mundu osoa harremanetan jartzen duen gero eta amaraun landuagoa izanda, euskaldunok ere gure tokia hartzen ari gara bertan. Oraindik euskarazko sare osotua josteko bide luzea gelditzen zaigun arren, dagoeneko bada gure hizkuntzan sarean zeharreko ibilbide txukuna egiteko aukera. Hala ere, bidean barrena euskal bidaiaria engainatuta senti daiteke zenbait unetan, euskaraz kontsultatu beharko litzatekeen guztia ez baitago hala, eta, zenbait kasutan, euskaraz dagoena ere...**
**Gauzak horrela, hona hemen interesgarri suerta daitezkeen zenbait helbide eta atariren bilduma txikitxo bat. Gehiago jakin nahi duenak ordenagailuaren pantailaren aurrean jarri besterik ez du.**






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa







## Araba sarean

**• HALA BEDI IRRATIA:**
http://halabedi.org/halabedieus.htm
Gasteizko Irrati libreenaren programazioa sarean. Bazkide egiteko aukera eta beste irrati libre batzuei buruzko kontuen berri ere ematen du.

**• ARABAKO PATATA:**
http://www.euskolabel.net
Gure "lurpeko altxorraren" web-orrialdea.

**• LAPUEBLA LABARKA:**
http://www.lapuebladelabarca.es.vg
Arabako Errioxako herriaren historia, argazkiak, pertsonaje garrantzitsuen inguruko argibideak...

**• NEKAZALTURISMOARI BURUZKO GUNEAK:**
http://www.alava.net/agroturismo/indexe.html
Arabako nekazal-etxe desberdinei buruzko informazioa eta horien helbideak eskualdeka kontsultatzeko aukera.
http://www.euskalnet.net/eskutxi/
Zollon kokatutako nekazal-etxearen aurkezpena.

**• ARABAKO URTXINTXA ESKOLA:**
http://members.tripod.com/araba-urtxintxa/
Asti eta aisialdiko begirale eskolan barna miatu eta izena emateko aukera.

**• ALAVES TALDEAREN WEB-GUNE EZ OFIZIALA:**
http://pagina.de/alaves
Futbol talde arabarrari buruzko xehetasunak: berriak, jokalarien fitxa teknikoa, argazkiak, klubaren historia, Mendizorrotza eta Liga, Kopa eta UEFAko partiden inguruko iruzkinak.

• Hauez gain, Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundiaren web-orriak ere euskaraz bisita daitezke, **baina oraindik atal bat edo beste gazteleraz baino ez dakarte**.

**GASTEIZKO UDALA:**
http://www.vitoria-gasteiz.org/
Udalak antolatzen dituen jardueren berri izan dezakezu bertan, telefono zenbaki erabilgarriak eskuratu...

**ARABAKO FORU ALDUNDIA:**
http://www.alava.net/
Arabari buruzko berriak, Aldundiak ematen dituen laguntza eta dirulaguntzen berri, hirigintza eta herrigintza proiektuak, ekonomia, nekazalturismoa eta abarri buruzko informazioa ematen du.




## Musika

**• EUSKAL MUSIKAREN TOPAGUNEA:**
http://web.jet.es/ek/em/linkeus.htm/
Euskal musika orrietarako bitartekoak, kontzertuen agenda, musikari buruzko berriak eta gutxi barru musika bilatzailea, txat gela, diskoen iruzkinak... Atari honen bidez **BETAGARRI** bertako taldearen atalean sar daiteke, esaterako.




## Komunikabideak

**• IRRATI LIBRE EUSKALDUNEN TOPAGUNEA:**
http://groups.yahoo.com/group/irratilibre/
Markinako EUP! Irratitik martxan jarritako Irrati libre eta independiente euskaldunen arteko posta zerbitzua.

**• EGUNKARI ETA ALDIZKARI ELEKTRONIKOAK:**
http://www.egunkaria.com
http://www.argia.com/






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




## Euskara eta euskal kultura

• **EUSKO IKASKUNTZA:**
http://www.eusko-ikaskuntza.org/
Azaroan egindako euskal kultura, zientzia eta gizarte zibila hizpide izan dituen kongresuaren berri aurkituko duzue.

• **UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA:**
http://www.ueu.org/
Sarearen bitartez UEUren ikastaro desberdinen xehetasunak jakiteko parada.

• **EUSKALDUNON TOPAGUNEA:**
http://www.topagunea.com/
Euskara elkarteen eta herri komunikabideen ataria eta euskararekin loturiko atalen garapen sakona.

• **AEK:** http://www.aueknet.net/
Euskal Herriko Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundearen aurkezpena, metodologia, berriak, zerbitzu desberdinak, barnetegien eta euskaltegien zerrenda, Korrikari buruzko atala...

• **EUSKALTZAINDIA:** http://www.euskaltzaindia.net/
Erakundearen azkenengo berriak, erabakiak, partaideen helbideak eta abar.

• **ABARRAK:** http://www.euskalnet.net/aizuri/
Euskarazko web-guneen bilduma. Euskarazko bilatzaileetara eramaten zaitu eta euskararekin zerikusia duten elkarte, erakunde, hedabide eta iritzi desberdinak ezagutzeko aukera luzatzen du.

• **EUSKAL HERRIKO FOLKLOREARI BURUZKO GUNEAK:**
http://www.galeon.com/euskalfolklorea/
http://www.itsasi.com/: Azpeitiako dantza taldearen ataria. Argazkiak, historia...

• **EUSKARA ATZERRIAN. ZARAGOZAKO EUSKAL KULTUR TALDEA:**
http://www.geocities.com/ektzgz/euskara/portada.html.

## Literatura

• **EUSKARAZKO OLERKIGINTZAREN GUNEA:**
http://www.arrakis.es/
Amaia Iturbide, Andolin Eguzkitza, Arantza Urretabizkaia eta beste euskal idazle askoren olerkien bilduma.

• **LITERATUR ALDIZKARIAK:**
http://www.armiarma.com/
Bertan 1998. urtera arte kaleratu literatur aldizkarien berri topa dezakezu.

***Euskarazko atal interesgarriren baten berri eman nahi izanez gero, deitu hona -945 22 21 53- argitara dezagun.***

## Denetikoak

• **ESKULTOREAK:** http://www.murua.com/
Tomas Murua eskultorearen ataria.

• **SUKALDARITZAKO ADIBIDE BATZUK:**
http://perso.wanadoo.frmusee.gateaubasque/
Euskal pastelaren museoa. Argazkiak, errezeta eta bisita birtuala.
http://karlosnet.com/
Karlos Argiñanoren sukaldaritza. Mota guztietako errezetak eta gomendioak. Eusko Label Kalitatea.

• **EUSKAL HERRIKO ABIZENAK:**
http://www.surnames.org/pv.htm
Euskal abizenen esanahia eta armarria ezagutzeko orrialdea.

• **EUSKAL HERRIKO JAIAK:** http://www.jaiak.net/
Jaien egutegia hilez hile.

• **EROSKETAK EGITEKO GUNE BITXIAK:**
http://www.paisvasco.com/lardies/
Euskal ohiturazko janzkiak, txapelak, kamisetak, ikurrinak eta armarriak ikusteko eta erosteko aukera.

• **NEKAZALTURISMOA EUSKADIN:**
http://www.encomix.es/nekazal/inde-e.htm/
Nekazalturismo elkartearen orrialdea. Herri eta eskualdekako sailkapena eta etxe desberdinetarako bitartekoak. Dena dela euskaraz idatzita al dago??!!??!!?: **iskuntz, informacioa, haukera, nai...**

• **PORNOGRAFIA EUSKARAZ:**
http://www. euskalpornoteka.com/
Ez genuen sartzerik izan… Sartzeko ordaindu behar, antza…




## Bilatzaileak

• http://www.kaixo.com/
Lan Bila, adibidez, Kaixo-k eskaintzen duen ataletako bat da.
• http://www.jalgi.com/
• http://aurki.com/






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Txan Magoa

**ABENDUAREN 14an**
**Arratsaldeko 6.30etan**
**Armentia Ikastolan**



**SARRERAK ARMENTIA IKASTOLAN SALGAI**
**(aurreko astean, 17.00etatik 18.00etara, 500 pezetan)**



**ARABA EUSKARAZ-2002-k antolatua**
**KULTUR ERROTA**

**LAGUNTZAILEAK:**
**GEU elkartea. GEU aldizkaria**

**GEUk 5 SARRERA OPARITZEN DITU. DEITU LEHENBAILEHEN!**

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**• BAGARE EUSKAL TOKIAK AURKEZTEN DU:**

ZINEMA EUSKARAZ
Azaroaren 29an, abenduaren 3an, abenduaren 13an eta abenduaren 20an, Mikeldi Zinemetan, 20.00etan, 400 pta.n.
***Ikus. aldizkariarekin batera banatutako orria.**

**• PARRAL TABERNA. ABENDUKO AGENDA**

6. URTEURRENA OSPATUZ...
...ABENDUAREN 3-4-5ean:
**3an:** OSVALDO CICCIOLI (Madrilgo bakarlari argentinarra)
**4an:** KASKETE KABARETE - 'Neskapolitan'
**5ean**: PAM taldea (Ermutik, Julio Kageta eta Dantzut-eko kideak)

***ZORIONAK PARRAL!!!***

Eta gainera:
- **11n:** Kultur Errota Geu elkartearen eskutik: KARIDADEKO BENTA (Jon Maia,...).
- **18an:** Diego Cantero Murtziako bakarlariak bere "Cuentos" diskoa aurkeztuko du.

**ORDUA: 20.30etan**

**• HIKAATENEO. ABENDUKO AGENDA**

(Zutik-ek zabaldutako gune soziopolitikokulturala)
Pinto kalea, 13 (lehengo Zuloa liburudenda)
Ekitaldiak hilero: errezitaldiak, hitzaldiak, bideo emanaldiak, mintegiak, mahainguruak...
**-1ean**, Internet ikastaroa. 10:00etatik-14:00etara
**-13an**, " El movimiento pacifista en E.E.U.U.: desde Vietnam hasta hoy" 20:00. Dani Wagman
**-14an** , Ipuin Kontalaria. 20:30. Joxemari Karrere
**-19an**, "Masculinidad y paternidad, mitos y símbolos". 20:00. Péter Szil
**-20an**, Laburmetraiak (Arte eta Lanbide eskola)
**-21ean**, Sto. Tomas eguneko JAIA: sagardoa, txistorra, bertsolariak...
**-27an**, Laburmetraiak (Arte eta Lanbide eskola)

**• UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA: SEXOLOGIA EUSKAL ESKOLA-2002**




Matrikula: abenduaren 26ra arte
Informazioa: 943 82 14 26 (UEUko Ikastetxe Nagusia. Eibar)

**• JOSTAILU EBAKIGARRIAK**
erakusketa. Haurrentzako ebakigarrien mundua. 2002ko urtarrilaren 13ra arte, Montehermoso Kulturunean

**• GAUEKOAK,**
Asteburuko gauetan aisialdiaz gozatzea. UDAZKENA 2001. Ostiral eta larunbatero GAUEAN, 22.00etatik 3etara
Aldabe gizarte etxea
www.gauekoak.org




**• HERRI MUGIMENDUARENTZAKO FORMAZIO IKASTAROAK**
INFORMAZIOA: JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOA. 943 27 55 61

**• IPUIN ETA KONTAKIZUN LABURREN VIII. LEHIAKETA**
(14 urtetik 25era bitarteko gaztentzat). Antolatzaile: Gasteizko Udala-Kimuak. Informazioa: Gasteizko Udala (Argibide eta Errejistro Bulegoan).
Epea:abenduaren 14a

**• INMIGRAZIO KONTUAN PRESTATZEKO IKASTAROA.**



2002ko Urtarrila-Maiatza.
Antolatzailea: Harresiak apurtuz (Etorkinen laguntzarako EGGen Euskadiko Koordinakundea).
Matrikula: abenduaren 15etik 30era.
Informazioa: 94 415 07 35 (Bilbo)

**• EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO GIDA.**
Eskuratzeko: Gasteizko Udala (Berdintasunerako Zerbitzua)- 945 16 13 45




## OLENTZERORAKO PROPOSAMENAK







• **ALDIZKARIKO LITERATURA ATALETAN** (ikus. 9 eta 19. orrialdeak) eta Musika atalean (21-23. 0rr) AGERTURIKO PROPOSAMENAK

• **IKASTOLEN ELKARTEA**. 2001-2002. 10 URTE. ESKAINTZA BEREZIA: D.K-ak, liburuak, bideoak, material didaktikoa (puzzleak, jokoak, ipuinak...), Olentzeromateriala, Xake zakurtzarrari CD-ROMa... (94 435 43 40)

• **LABRIT**en 2. diskoa: NORI EGIN SO! (Elkarlanean)

• **OSKORRI**ren disko berria: VIZCAYATIK... BIZKAIARA (Elkarlanean)

• **ROGELIO BOTANZ**en disko berria: Tiempo. (TALLER CANARIO)
*Bakarlari kanariar-euskalduna (Gaztelupeko Hotsak)

• **Paulo Coelho**
ALKIMISTA (Txalaparta)

• **KAMILTXO**
Lehen hartz euskalduna
Tfnoa: 902 45 12 12














Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




**IZEN BILA. ZOZKETA.** **Oraindik gure pertsonajeak ez du izenik. Bidali zure proposamena. Irabazleak sari galantak jasoko ditu.**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# EUSKARA AHOTIK AHORA



**KOLDO MITXELENA**
I N S T I T U T U A
G A S T E I Z

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ekhi



ARROPA PREZIO EZIN HOBEAN

- TXAMARRAK ETA GALTZAK
- TXAMARRAK FORRO POLARRAREKIN
- FORRO POLARRAK
- LO ZAKUAK
- MOTXILAK ETA PETATEAK
- ARTISAU ARROPA

ASTELEHENETIK
LARUNBATERA
GOIZ ETA ARRATSALDEZ
IREKITA

## ZURE EROSKETA EUSKARAZ EGITEKO AUKERA PAREGABEA





KORRERIA KALEA, 118-BEHEA

TEL/FAX.: 945 135 859

WWW.EUSKALNET.NET/EKHISC

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa